



ONINTZA ENBEITA

JAI GIROA. Eguerdian dantza itzelak egin ebezen gazteenek Sabino Arana enparantzan.

Onintza Enbeita | **BERMEO**

Kostaldekoko jenteak beti euki dau umore ona izatearen fama. Bermeotarrei, ganera, adjektibo asko ipini izan jakez eskualdeko beste herrietan: zoroak, munduko hirugarren arrazea... Euren, baina, horri askorik begitu barik, jai giro ederrean ospatu dabez aratusteak.

«Bermeon ohitura handia dago moztortzeko. Gure aiti-ta-amamen sasoiaren be, aratusteak ospatu egiten ziran», azaldu eban herritar batek. Urtero ospatzen dira aratusteak, baina beti ez dira oraingo moduko moztorroak egin: «Lehenago ez genduan dirurik eukiten, baina zer edo zer egiten genduan. Batzuek arropa zaharrakaz urteten eban, besteek arpegia margoztuta... Inoz arpegian izarak jarrita be urten dogu, inork ez eza-gutzeko. Edozelan, baina urte onetan zein txarretan ospatu doguz aratusteak, Bermeon», esan eban beharrean egoan andra batek. «Gaur be nik beharrera ekarri dot moztorroa, eta eguerdian ez noa etxera be.

Umorea galdu ezkerro, akabo

BERMEOKO ARATUSTEAK. Umoretsu eta giro itzelean ospatzen dabez gazte, heldu zein neska-mutilek

OHITURA ZAHARRA

Antxinatik ospatzen dira aratusteak Bermeon, eta dirurik ez egoan sasoiaren arpegia margoztuta edo estalita urteten eban

Berton aldatu arropak, eta banoa kalera», generatu eban.

Sabino Arana inguruan ebi-len herritar baten berbetan, «Mundakan Atorren eta Lamién Eguna egiten da, baina aratusteak, jai moduan, Bermeon ospatzen dira gehiago». Egi-

MOZORROAK

Euskera teknikaria eskale jantzita egoan: euskerearen egoerearen ganeko parabolea egin gurako ete eban?

taraua, behintzat, zabala izan da aurtun. Barikutik atzo arte, egunero euki dabe herritarrek ondo ibilteko aukerea.

Edozelan be, atzo goizean eta arratsaldeko zati batean, txikiak izan ziran nagusi. Goizean goiz urten eban ikastetxeetatik,

eta, txarangea lagun, kalerik kale ibili ziran. Sabino Arana enparantzan dantza itzelak egin ebezen txanogorritxuk, otsoak, 101 dalmatek... Gero, arratsaldeko 14:00etatik aurrera, jaialdia egin eban Elizalde ikastolan.

Beharrera moztorro eta guzti

Batzuk beharlekura eroan eban moztorroa, handik urten eta kalera joateko. Beste batzuk, barriz, moztortuta joan ziran beharrean. Udaletxeak, esate baterako, seriotasun guztia galdu eban atzo Bermeon.

Normalean, holako lekuetan, jentea serio egoten da. Administrazioen beharginek fama be ez daukie bape ona. Bermeon, baina, horretan be eskema guztiak apurtu ebezan atzo. Esate baterako, historiaurreko jentea egoan herritarren zalan-tzak erantzuten. Eguneroko moduan behar egin eban guztiek, baina batzuk janzkera ez-bardinagaz.

Moztorrorik berezienak edo, itzultzaileak eta euskera teknikariak eroan ebezan. Izan be, itzultzailea sorgin jantzita egoan atzo. Sorginkeria ez da egongo seguruago, bere beharretik oso urrun. Askotan, itzulpenak egiteko magia be egin beharko dau. Batez be, presazko beharrak agintzen deusiezanean.

Euskera teknikariak, oster, bete betean asmau eban. Atzokoagaitik, eskalea egoan euskera teknikari. Hizkuntzearen egoerearen parabolea egin gurako ete eban? Bermeon bertan, ez dabil hain txarto euskera zerbitzua, baina Euskal Herri osoan kontuan hartuta ezaguna da euskerearen egoera.

Atzoko parrandeagaz amaitu dira kostaldean, aurtongo aratusteak. Giro onean hasi ebezan jaiak, eta giro hobean amaitu dabez. «Mozorroa gitxienekoa da. Giro ona sortzen da urian, eta txuflarako egunak dira honeek», azaldu eban batek, eta aurtun be, jaiak bere helburua bete dauela ziurtatu eban.

GERNIKA-LUMO

Gernikazarra taldekoek berbaldia eskainiko dabe gaur, Bake Leku

Bake Leku txokokoek hirugarren afari tertulia antolatu dabe gaurko. Gernikazarra historia taldekoek eskainiko dabe berbaldia, eta txokokoek, ohiko moduan, afaria gertauko dabe. Antolatzaileek azaldu dabenez, apirilera-ko beste berbaldi bat hitzartu dabe Gernikazarragaz bonbaketearen inguruan, gai horren ganeko zer edo zer egiteko.

Santa Anako aparkalekua txiki geratu da, eta bete egiten da

TAO jarri aurretik oso leku gitxi egoten zan Santa Anako aparkalekuan autoak izteko. Orain, oster, eguerdira-ko osorik beteten da. Atzo, esate baterako, autoz beteta egoan aparkalekua goizeko 11:00etarako. Jentea hasarre dago aparkaleku falteagaitik, eta askok aparkaleku gehiago egiteko eskaerea egin dau. Auto kopurua gixtitzen ez dan artean, ezin izango dira garabiagaz batutako autoak Santa Anara eroan.

BUSTURIA

Aranzadi zientzia alkarteari diru laguntzea emon deutso Udalak

Busturiako Udalak 601 euroko laguntzea emon deutso Aranzadi zientzia alkarteari. Udalak azaldu dauenez, Aranzadik egindako Mairubartzatik Pirinioetako Harrespilak liburuan, Busturiako cromlecha agertzen da. Horixe izan da diru laguntzea emoteko arrazoi nagusia.

AGENDA

BERMEO

Ipuin kontaketea: Barikuan, arratsaldeko 18:00etan, Joxe Mari Karrereren ipuinak entzuteko aukerea egongo da Joxemiel Barandiaran udal liburutegian.

GERNIKA-LUMO

Lehiaketea: Zezeilaren 15ean amaituko komikiak eta leloak aurkezteko epea. Gaia, uri tresneriarenganako sentsibilizazioa da, eta gero, kanpaina horretarako erabiliko dabez lan sarituak. Kultur Etxera eroan behar dira lanak aitatutako eguna baino arinago. Postaz bialtzeko haxe da helbidea: Foru Plaza 1 zbk., 48.300 Gernika-Lumo. Gero, erakusketea egingo da Elai Alai aretoko erakusgelan, lehiaketara aurkezten diran lan guztiakaz.

BERMEO. Irakurten jakin ez arren, umeak liburutegira guraso eta guzti joan leitekezala esan dabe

Umeentzako aukera zabala daukiela gogoratu eragin dabe Joxe Miel Barandiaranen

O. E. |

Bermeoko Joxemiel Barandiaran udal liburutegiak hainbat ipuin kontaketa saio antolatzen dauz umeentzat. Horren helburua irakurzaletasuna bultzatzea eta txikien kasuan sortzea da. Behin irakurzale egiten diranean, baina, neska-mutilek lekua behar dabe liburuak aukeratu eta irakurteko. Horretarako be, ez dago arazorik liburutegian.

Arduradunek gogoratu eragin dabenez, umeentzako liburutegian, aukera zabala dauka udal liburutegiak. Ganera, gazteenei be aukerea emoten jakie liburuak etxera eroateko. Halandaze, bertan irakurten ez dabena, gustokoen dauen lekuan irakurteko aukerea izango dau.

Ganera, Joxemiel Barandiaranen umeen txokoa, nagusientzat be zabalik egoten da. Bai behintzat, nagusiok, umeen gu-

rasoak diranean. Orduan, irakurteko laguntzea behar dabene be aukera majoa daukie Bermeon. Ganera, nagusientzako be egoten dira ipuin kontaketak liburutegian, eta umeakaz praktiketako aukerea izan leiteke familia osoa liburutegira joate.

Edadea ez da arazoa

Liburutegiko arduradunek azaldu dabenez, edadea ez da ara-

zoa joan gura dabenenatzat. 0-tik hasi eta edade guztiek daukie zabalik bertako ateak. Irakurten jakitea ez da beharrezkoa Joxemiel Barandiaran liburutegira joateko.

Antza danez, material asko daukie irakurten ez dakien umeentzat. Batez be, marrazkietan eta jolasetan oinarritutako ipuinak. Halandaze, Bermeoko neska-mutilek ez daukie aspertzeko arrazoirik. Eguzkiak urteten dauenean Lamera osoa, Tala osoa eta beste leku asko daukiez olgetako. Euria egiten dauenean, barriz, liburutegia.